

IRAGARKIA

8. ALDIZKARIA - 2011ko urtarrilaren 13a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK IRURTZUN

Ordenantza, Etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzak arautzen dituena. Behin betiko onspena

Irurtzungo Udalak, 2010eko urriaren 5eko osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen aipatu ordenantza. Iragarki hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik jendaurrean egoteko 30 egun balioduneko epea iragan denez inork alegaziorik aurkeztu gabe, ordenantza behin betiko onetsi da. Haren testu osoa ondotik ematen da.

ORDENANTZA, ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUENA

1. artikulua. Xedea.

Irurtzungo Udalak ezarritako laguntza ekonomikoak emateko irizpideak eta prozedura egituratu eta finkatzea du xede ordenantza honek, Irurtzungo Udal Barrutian etxebizitzaren zaharberritzeari sostengu eman beharrez.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza honen aplikazio eremuan sartzen dira udal mugapean diren etxebizitzak zaharberritzea, baldin eta eman gogo zaien erabilera galarazten duen mugapenik ez badute edo hirigintzako antolamendutik kanpo sailkaturik ez badaude, eta, berriz, baldin badute obra lizentzia, lehen erabilerako lizentzia eta bizigarritasunaren zedula, kasu bakoitzaren arabera.

3. artikulua. Jarduketa babesgarriak.

Jarduketa hauei dagokie Udalaren babeseko obrak izatea:

a) Zaharberritzeko obrak.

Ordenantza honen ondorioetarako, zaharberritze obratzat hartuko dira eraikin baten egitura eta funtzioa egokitzeko eta bizigarritasuna erdiesteko egiten direnak, sailkapen honen arabera:

1.-Eraikinaren egitura egokitzea.

Eraikuntza aldetik higiezinak behar adinako segurtasun baldintzez hornitzen dituzten jarduketak, haien egonkortasuna, erresistentzia, irmotasuna eta sendotasuna bermatzeko.

2.-Eraikinaren funtzioa egokitzea.

Higiezinak behar adinako ezaugarri hornitzen dituzten jarduketak, alderdi hauetan:

-Estalkiak konpontzea: teilatuak, teilatu-hegalak, isolamendua, kanalizazioak, zorrotak eta abar. Fatxadak konpontzea: zur lana, isolamendua, estaldura eta kanpoko dekorazioa, oro har.

-Aurreko horietakoekin batean elementu komunetan egiten diren obra guztiak.

-Eraikinak indarra duten eskakizunei egokitzeko egiten diren obrak.

b) Oztopo arkitektonikoak kentzea: mugitzeko ezinduta dagoen jendea edo 70 urtetik gorakoa bizi den etxebizitzaren kasuan.

4. artikulua. Babesteko moduko jarduketaren xedeko eraikinen baldintza orokorrak.

a) Zaharberritzeetan eta obra babesteko moduko hirigintzako jarduketa izan dadin, eraikinak baldintza hauek bete beharko ditu:

-Lehen erabileraren lizentzia eskuratu izatea.

-Etxebizitzaren kasuan, erabilera hori nagusi izatea; gainera, bizigarritasunaren zedula izatea.

-Hogeita bost urtetik gorako antzinatasuna izatea, oztopo arkitektonikoak kentzeko kasuan izan ezik.

-Araudia eta hirigintzako planeamenduak edo nahitaezko txostenak xedatutakoari egokitzea, obra lizentzia eskuratu baino lehen.

Orobat, diruz lagundutako zaharberitzeetan, eraikinek egitura eta eraikuntza aldetik segurtasun baldintzak betetzen ez badituzte edo sare orokorretako gutxieneko zerbitzuez hornituta ez badaude, haiek eskuratzeko obrak egiten direla bermatu beharko da.

b) Jarduketa eta obra guztietan koherentzia teknikoa eta eraikuntzazkoa bermatuko beharko dira bai eraikinen kontserbazio egoerarekin bai Udalaren hirigintza planeamenduarekin (Udalaren ordenantzekin, halakoak daudenean), baita haren erabilera, segurtasuna edo estetika hobetzen direla ere.

c) Baztertuta daude ordenantza honetan aurreikusitako Udalaren laguntzetatik:

-Udalaren zerbitzu eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen obrak egiten ez dituzten jarduketak.

-Barreneko akaberetako hobekuntzak, babesteko moduko jarduketak egiteko nahitaezkoak direnak izan ezik.

-Udal Planeamenduak antolamendutik kanpokotzat jo eta horrela sailkatzen dituen obrak.

-Udalaren obretarako lizentziarik gabe hasitako obrak eta Udalaren beharkizun edo determinazioak betetzen ez dituztenak.

5. artikulua. Udalaren baliabide ekonomikoak.

Ekitaldi bakoitzean Udalaren aurrekontuetan jasoko dira ordenantza honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoari aplikatuko zaizkien baliabide guztiak; horrela, ekitaldian agortuz gero eta laguntzak likidazioaren zain badaude, hurrengo urtean ordainduko dira, zein den indarra duen ekitaldia, haren aurrekontuen kargura.

6. artikulua. Laguntzak.

Honako hauek dira eraikin eta etxebizitzak zaharberitu eta eraikitzeke Udalaren laguntzak: Irurtzango Udalak emandako dotazio ekonomikoak, ordenantza honen 1 eta 2. artikuluetan ezarritakoaren arabera, babesteko moduko hirigintzako jarduketentzat direnak; aholkuetarako laguntzak eta laguntza bereziak deitutakoak, hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

7. artikulua. Udalaren laguntza motak.

Etxebizitzak zaharberitzea xede duten udal laguntzak ekonomikoak izanen dira.

8. artikulua. Laguntza ekonomikoak.

a) 25etik 50 urte bitarteko etxebizitzak, EIOZaren %50. Betiere aurrekontuak, BEZik gabe, 3.000,00 eurotik goiti egiten badu.

b) 50 urtetik goitiko etxebizitzak, EIOZaren %75. Betiere aurrekontuak, BEZik gabe, 3.000,00 eurotik goiti egiten badu.

9. artikulua. Familia unitatearen kontzeptua.

Ordenantza honen ondorioetarako, familia unitatetzat hartuko da higiezin berean bizi diren pertsonak, erroldako orri berean daudenak, alegia.

10. artikulua. Eskatzaileak.

Laguntzaren xedeko higiezinaren jabeak diren pertsona fisikoek edo juridikoek eskatzen ahal dituzte ordenantza honetan araututako laguntzak.

11. artikulua. Laguntzak eskatzeko baldintzak.

-Eskatzailea higiezinaren titularra izatea eta Irurtzango bizilaguna.

-Diruz lagundutako higiezina haren bizilekua izatea.

-Eskatzailea ez izatea udalerriko bertze etxebizitza baten jabe.

-Familia unitateko kide guztiek Udalarekin inolako zorrik ez izatea, zerga guztiei dagokienez.

-Behar den bizigarritasun zedula izatea,

-EIOZari dagokion ordainketa egin izana.

12. artikulua. Laguntzen tramitazioa.

Ordenantza honetan ezarritako laguntza ekonomikoak tramitatzeko, indarra duen arautegi orokorrari jarraituko zaio, hartan xedatzen baitira etxebizitzaren zaharberikuntza babesteko tramitazio baldintzak; orobat, aplikagarriak diren gainerako arauak.

Eskaerak Irurtzango Udalari egingen zaizkio, obra erabat burutu eta sei hilabeteko epean, dokumentazio hau gehituta:

-Eskabidea.

-Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu izanaren agiriaren kopia.

-Obra akaberaren ziurtagiria, teknikari eskudunak sinatua.

-Udaleko teknikariaren txostena, egindakoa proiektuarekin bat heldu dela baieztatzen duena, eta horretarako aurkeztutako dokumentazioa.

-Higiezinaren jabetzaren eskritura.

-Bizigarritasun zedula.

13. artikulua. Laguntza ekonomikoen ordainketa.

Irurtzngo Udalak ordainduko ditu ordenantza honetan ezarritako laguntza ekonomikoak, aurreko artikuluan adierazitako dokumentazio guztia jasoten denetik sei hilabeteko epean, 5. artikuluan ezarritakoa ukatu gabe.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta ondorio juridiko guztiak sorraraziko ditu.

Irurtzunen, 2010eko abenduaren 14an.-Alkatea, Juan José Iriarte Vitoria.

Iragarkiaren kodea: L1020502